

## BALIOAK:

Gure proiektuak, beraien bizilekutik urrun dagoen unibertsitate batean ikastera doazen gazteei egoera berri horretara egokitzen laguntzen die, izan ere, pisu bat bilatzea lan handia ekartzen du eta askotan familiek ez dute behar den diru kopuru hori, beraz, gure web guneak pisu bat eta pisu kide bat denbora laburragoan bilatzen laguntzen du.

Proiektu honek hainbat balio eskaintzen ditu. Alde batetik nobedadea izango litzateke. Hau da, merkatuan, ez da gure proiektua eskaintzen. Egia da, pisuak alokatzeko webgunean duda gabe existitzen direla, baina ez pisu kidea aurkitzeko aukera izatea web gune berdinean. Modu horretara, hiri edo herrialde ezezagun batera egokitzeko prozesua guztiz errazten da.

Aurrez aipaturiko bezala, gure ideiak erraztasuna ere eskaintzen du. Ikasle asko atzerrira joan behar direnez, pisua, erresidentzia, unibertsitatea, pisu kidea edo bestelakoak aurkitu behar dira. Gure proposamenarekin, prozesu guzti hau errazten da, zehazki, pisua eta pisu kidea aurkitzea ahalbidetzen baitu. Honetaz gain, jende berria ezagutzen da eta horrek ere erraztasunarekin du erlazioa.

Azkenik, erabilgarritasuna handia da. Belaunaldi guztietan dago jendea atzerrira joateko beharra duena. Alegia, behar duen unibertsitatea ez dagoelako bere herrian, atzerrira joatea nahi duelako, familia atzerrian duelako edo unibertsitatea gustukoa duelako. Arrazoi horiek guztien ondorioz, handia da pisua aurkitzeko beharra eta ondorioz, oso erabilgarria izan daiteke.

Laburbilduz, gure proiektua, nobedadea da. Ez baita existitzen, pisu kidea aurkitzea ahalbidetzen duen bitartean, pisua alokatzeko aukera ere ematen duelako. Bigarrenik, erraztasuna ere eskaintzen du. Herrialde berri batera egokitzeko prozesua errazten du eta gainera, lagun berriak egiteko eta jende ezezaguna ezagutzea ahalbidetzen du. Azkenik, erabilgarritasuna oso handia da, eskaera ere handia delako. Oso handia da, atzerrira ikastera joaten den jendearen kopurua.